

Gotzaina aukeratzen (I)

La elección de los cargos de la Iglesia romano-latina de Occidente ha conocido sistemas variados a lo largo de sus dos mil años de historia. Así ha sucedido también en el caso de las elecciones episcopales. Diversos factores, internos y externos a la Iglesia, han contribuido a que aparecieran sucesivamente procedimientos más o menos acordes con culturas y sociedades coetáneas.

Gotzainak aukeratzeko moduek aldakuntza ugari ezagutu dute Kristautasunaren historian, baita Mendebaldeko Eliza erromatar-latinoan ere. 1917tik hona bakarrik egon da indarrean Erromako Aita Santuak bere eskumenez munduko gotzain guztiak hautatu eta izendatzeko arau orokorra. Beranduko araua da, beraz.

Bien bitartean, ohitura eta arau ezberdinen arabera egin izan dira gotzain-hautapenak, ezberdinak denboran zehar gotzain-hiri berean, ezberdinak lurralde eta kultura ezberdinetan, betiere garaian garaiko premia eta inguruko indar eta borondateei erantzunez. Hortaz, baliozkotzat hartu izan da gotzaina hautatzeko modu ezberdin asko, Antzinatean bezala Erdi Aro, Moderno eta Garaikidean.

Hautapen-prozeduren aniztasuna

Gogoratu behar da gotzainak izendatzean, elkarren jarraian hiru une daudela: lehenengo, *aukeratzea* bera; bigarren, gotzain-gaia Ordenako sakramentuaren arabera *sagaratzea*, eta azkenik, izendapenak eduki izan duen herritarren *harrera*. Hemen lehenengo une hartaz esango dut zerbait, aukeratzeaz alegia.

Antzinatean, aukeratzea eta sagaratzea

elkarrekin oso lotuta ageri dira Antzinateko Elizan, kasik ekitaldi berean segidan egiten ziren: tokian tokiko aukeratzailleek beren erabakia bertako ohituren arabera hartu ondoren, inguruko beste gotzainen bat edo batzuek sagaratzen zuten hautatutakoa, gotzain-gaiari eskuak ezarriz (Ordenako sakramentua). Hori izan zen luzaroan usadioa.

Geroko mendeetan, Eliza Katolikoan ez da egon berdintasunik hautapen-prozeduretan, inguruabar historikoen arabera tokiko leku ezberdinetako premiek beren eragin propioa izan zutelako, hain zuzen indar eliztar eta sozialak aldatuz joan zirenez, horiek arazoaren trataera ezberdinak ekarri zituztelako. Izan ere, gotzain-hirietan (Erroma, Milanon nahiz Iruñea edo Calahorran, adibidez), edota Erreinuan gotzain-aginteak izan zezakeen indarragatik sortzen ziren hautapen-prozedura ezberdinak, edo, zer esanik ez, Nafarroako nahiz Gaztelako Erreinueetan Koroak eliz arazoak gertutik zaindu nahi zituelako.

Aginte zibil eta eliztarraren arteko harremanek beren gertutasun edo urruntasunak izan dituzte, eta segun nola moldatzen zen harreman hori eta unean uneko oreka/desorekaren arabera, batak ala besteak izan zuen pisu handiagoa gotzaina aukeratzean.



Aldaketak pausoz pauso

Erroma jentilak kristauei erasotzen zien garaietan (I-III. mendeetan), hango Inperioak ez zuen gotzain beharrik, Eliza legez kanpo utzi nahi baitzuen. Baina IV. mendean, Kristautasuna Inperioko erlijio libre (313) eta ofizial bihurtu zenetik (380), eliz Hierarkia Inperioko egonkortasun sozio-politikoaren segurtatzeko tresna estimagarri bihurtu zen. Gotzainen mundu hori Enperadoreak zaindu egin behar zuen guztien onerako: baina ohi ziren tradiziozko hautatzaileen parte-hartzea errespetatuz (herria, klerikoak, etab.)

Inperioa herri "barbaro" deitzen erasoaren ondorioz desagertzean (476...), Erreinu bakoitzak Eliza kristaua aintzakitatzat hartu zuten, esaterako frankoen eta bisigotoen Erreinueetan, hau da, Clovis frankoen errege jentila bataiatu (c. 496) eta Rekaredo arriotarra katoliko (589) egin ondoren. Eliza-Koroak oso batuta joan ziren, eta Erregeek esku zuzena nahi izan zuten gotzainak aukeratzeko.

Feudalismoarekin (X-XII. mendeetan) Enperadore, Errege eta eskualdeetako Jaunek gotzain-aukeraketa eta izendapena beren eskuetan hartzea lortu zuten, eliz erabaki edo gogoei begiratu gabe. Hain zuzen, aginte laikoen sasi-eskubide horren aurka ahalegindu ziren Aita Santuak, XI. mendetik aurrera..

Hautapen hauetan Elizaren beregaintasuna indartzeko, Gregorio VII.ak (1073-1085) garbi azaldu zuen zein zen irizpide jatorra: "Goztaina tokiko apaizeriak eta herriak

aukeratua behar du". Hor ez da ageri ez Aita Santurik, ez bestelako agintaririk. Ondoko belaunaldietan, ordea, behin eta berriz eman nahi izan zitzaion bestelako prozedurarik ere gotzaina aukeratzeari.

Inperioa eta Erret Koroak indartu ahala (XII-XIV. mendeak), botere zibil indarberrituak bi xede izan zituen bereziki: herritar laikoen eta tokiko eliz-erakundearen parte-hartzeak mugatzea (Katedraletako kalonjeena, adibidez), eta aginte zibilarirenekin modu batera edo bestera gotzaina aukeratzeko eskubide-moduren bat behintzat segurtatzea.

Horretarako prozedura ezberdinak asma zitezkeen: Koroak hirukote hautagarri bat proposatzea, zerrendako edozein aukeraturik baiezkoa ukatzea, tarteko hautatzaile lagunak erabiltzea eta abar. Kontu egin behar da orduan Erregeren mendeko nobleziak toki aski izan ohi zuela eliz hierarkiako maila ezberdinetan, eta hori zainduz gero Erregeren borondatea irabazle atera zitekeela, betiere herritar aukeratzailerik ez zirela.

Jauntxo feudalen indarra behera etorri zenetik (XIII.etik aurrera), Erregeek gotzain-hautapenen arazoa negoziatzeko solaskide nagusi bakarra izan zuten, Erromako Aita Santua. Bion onerako, Erromak eta Koroak ez zuten tarteko beste aginteren nahitaezko premiarik. Garai berriak zetozen, bada.

Joseba Intxausti